

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak Karlos III.a Prestuaren beste lau gurutze eman ditu

Gurutzeak Elikagai Bankuak, Manos Unidas kanpainak, Fundación Proyecto Hombre fundazioak eta Crisanto Ayanzek jaso dituzte

Lunes, 02 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko bileran, Nafarroako Karlos III.a Prestuaren beste lau gurutze ematea erabaki du Elikagai Bankuak, Manos Unidas kanpainak eta Proyecto Hombre fundazioak erkidegoan dituzten ordezkariak; baita Crisanto Ayanz ere, Argentinako eta Txileko Zentro Nafarren federazioko presidenteari.

Gobernuak Nafarroako Elikagai Bankuari eman dio gurutzea "Solidarioak izatearren eta lanean etengabe aritzearren askotariko arazoak direla-eta egoera ezegonkorrean bizi diren eta elikagaiak erosteko dirurik ez duten pertsona eta familientzako elikagaiak biltzeko".

Manos Unidas Navarraren inguruan esan du "problezia, gosea, malnutrizioa, gaixotasunak, eskolatzerik eza eta azpigarapena bezalako munduko arazo larriak erantzun aktiboak eta eraginkorrak" ematen lagundu duela, baita Foru Erkidegoan ere.

Fundación Proyecto Hombre Navarraren kasuan, Gobernuak "pertsona ugariren drogazaletasunaren arazoiak irtenbide eraginkorrak emateko egindako ahalegia eta, alor horretan, gizarte bazterkeriari aurre egin izana" eskertu du.

Azkenik, Gobernuak Crisanto Ayanz lan nabarmendu du "Argentinan bizi diren nafarrei eta nafarren ondorengoei arreta emateagatik eta han daudenen ordezkari izateko lan goresgarria egiteagatik. Horrek, gainera, pertsona horiek Foru Erkidegoarekin duten lotura eta Nafarroaren irudi ona indartzen lagundu du".

1997an sortu zen kondekorazioa

Kondekorazioa 1997an eratu zuen Foru Gobernuak. Horren helburua Nafarroaren aurrerapena indartzen eta Foru Erkidegoa kasuan



Elikagai Bankuak, Manos Unidasek, Crisanto Ayanzek eta Proyecto Hombrek jaso dute Karlos III.a Prestuaren gurutzea

kasuko jardueren bidez atzerrira zabaltzen lagundu duten pertsona eta erakundeen meritua azpimarratu eta jendearen aurrean aitortzea da.

Kondekorazioa sortu zeneko dekretuan (104/1997 Foru Dekretua) dago ezarrita gurutzeari Karlos III.a Prestuaren izena ematea, Nafarroako erregeen artean nabarmenena izan zelako; jarrera baketsua eta bateratzailea izan zuen, kulturaren eta artearen aldeko ekimenak aurrera eraman eta Europako gainerako gorteekin bakean eta adiskidetasunean oinarritutako harremanak ezarri zituen.